

Bakartxo Tejeria Otermin, Eusko Legebiltzarreko Lehendakari Andre Txit Garaia,

"Kobanê herriarekin elkartasuna, SUARGI Elkartea"-ren izenean idazten dizugu. Siria Iparraldean kokatzen den Rojava eskualdean lan egiten dugun Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE) gara.

Azken urteotan, genero ikuspegia ardatz duten proiektu eta ekimen ugari eraman ditugu aurrera, tartean Kobanê hiriko Emakumeen Akademia altzariz hornitu dugu, Durangoko herria eta Kobanê-ko herria senidetu ditugu, Ilargi Erdi Gorri Kurduarekin harremanak landu ditugu eta aurtengo abuztuan Durangoko emakume delegazio bat Siria Iparraldeko egiturak eta beharrizanak aztertzea joatea ahalbidetu dugu, tartean Durangoko eta Kobanêko emakumeen artean zubiak eraiki eta ahizpatasuna lantzearekin batera.

Gaurkoan zugana zuzentzen gara, urrian eta azaroan SUARGI Elkarteak, Durangoko Udalaren laguntzarekin, gonbidatuko duen emakumeen delegazioaren berri emateko. Emakumez osaturiko ordezkaritza feminista Siria Iparraldeko emakumeen egiturako bost bozeramailez osatuta egongo da. Apirilean Rojavako emakumez osatutako talde bat ekarri nahi genuen, baina zenbait arazo izan zirela medio, orduan bidaia ez zen posible izan.

Gutun honekin buru zaren instituzioarengana jotzen dugu lan saio bat proposatzeko. Uste dugu Eusko Legebiltzararentzat oso interesgarria izan daitekeela emakumeen delegazio hau jasotzea, tartean Kobanê herriko alkatea den Roushen Abdi. Horrela, Siria Iparraldean, gerra testuinguruan, garatzen ari diren emakume egiturak ezagutzeko aukera izango duzue.

Gure proposamena, bilera -azaroan hauteskundeak daudela kontuan hartuz- urriaren azken astean adostea da, izan ere, emakumeak urriaren 28an iritsiko dira eta azaroaren 7an bueltatuko dira Rojavara.

Delegazioko partaideak ondorengoak izango dira:

1. ROUSHEN ABDI
2. DEJLA HAIDAR
3. FALAK YOUSEF
4. ROUJIN HAMO
5. ZAHRA BARKAL

Adeitasunez,

Alaitz Berriozabalgoitia Galán

**SUARGI ELKARTEA**

Doña Bakartxo Tejeria Otermin Presidenta del Parlamento Vasco,

Le escribimos en nombre de la asociación "Kobanê herriarekin elkartasuna, SUARGI Elkartea", una Organización No Gubernamental (ONG) que trabaja en el Norte de Siria, concretamente, en la región de Rojava.

En los últimos años hemos llevado a cabo diferentes proyectos muchos de ellos con perspectiva de género. Entre ellos se encuentran, por ejemplo, la dotación de mobiliario para la recién construida Academia de la Mujer en la ciudad de Kobanê, el hermanamiento entre Durango (Bizkaia) y Kobanê (Federación Democrática del Norte de Siria), estrechar relaciones con la Media Luna Roja Kurda y el posibilitar que una delegación de mujeres de Durango viaje a dicho territorio para evaluar y conocer in situ las necesidades tanto materiales como sociales, así como estrechar lazos y trabajar la sororidad entre las mujeres de Durango y las de Kôbane.

En el día de hoy, nos dirigimos a usted para informarle que la ONG SUARGI Elkartea, en colaboración con el Ayuntamiento de Durango ha invitado a una delegación de mujeres feministas, pertenecientes a diversas estructuras de mujeres del Norte de Siria. El pasado mes de Abril tuvimos la intención de traer una delegación de mujeres de Rojava, pero por diferentes razones no fue posible.

Mediante este comunicado, nos dirigimos a la institución que usted preside para proponerle una reunión de trabajo. Creemos que el Parlamento Vasco se enriquecería con este encuentro que contará, entre otras, con la presencia de Roushen Abdi co-alcaldesa de la ciudad de Kobanê. De esta manera tendréis la oportunidad de conocer las estructuras de mujeres que se están construyendo en el Norte de Siria, en un contexto de guerra.

Nuestra propuesta -y teniendo en cuenta que hay elecciones en noviembre- es concretar la fecha de la reunión para la última semana de octubre, ya que la delegación de mujeres arribará el 28 de octubre y volverá a Rojava el 7 de noviembre.

Asistirían:

1. ROUSHEN ABDI
2. DEJLA HAIDAR
3. FALAK YOUSEF
4. ROUJIN HAMO
5. ZAHRA BARKAL

Atentamente,

Alaitz Berriozabalgoitia Galán

**SUARGI ELKARTEA**